

KRITIKA OPERA

Jesus Mari Begoña



XOUSE SIMAL

Bilboko Orkestra Sinfonikoak herenegun Arriagan emandako kontzertuaren irudi bat.

Usandizagaren bertsio gomendagarria

'Mendi-Mendiyan'

Egilea: Jose Mari Usandizaga. **Abeslariak:** Tatiana Davidova, Juan Lomba, Marta G. de Urbiet, Santos Ariño, Jose Antonio Carril, A. Etcheberria, Errenteriako Andra Mari Korala.

Orkestra: Bilboko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Juanjo Mena. **Lekua:** Bilboko Arriaga antzokia. **Data:** Ekainaren 21ean.

Oztopo batzuen gainetik, era duinean aurkeztua izan da Bilbon berriro, Jose Mari Usandizaga donostiarraren *Mendi-Mendiyan* euskal operaren euskarazko bertsioa. Juanjo Mena zuzendariak partituran irakurketa ona eskaini zigun. Maisu artistikoak egoki islatu zituen konpositoreak 1910ean konbinatu zituen idazkera aurreratua —frantziar operaren edota Pucciniren eraginak— eta euskal doinu herrikoi zoragarriak, parametro nazionalista eta bukoliokoaren ildoetan.

Pareko maila onean bete zuten lana abeslari bakarlariek. Tatiana Davidova euskal bulgariar sopranoak gustuko kantaldia eta ahoskera egokia erakutsi zizkigun Andrearen rol luzean. Bere bularreko ahots goxoarekin, afinazio, zabalkunde eta ondo ibiltzearen jakinduria frogatu zuen erdi eta goi tesituran. Haren artzai maitalearen rolean, Juan Lomba tenoreak adorea, indarra eta zuzentasuna adierazi zituen, nahiz eta batzuetan bere haize igorpena kontralakaiz iruditu eta behe-ranzko *vibratoa* adierazi. Santos

Ariñok eta Etcheberriak, Juan Cruz eta Gaiztoren roletan, sa-soi eta gorputzaldi onean dardela adierazi ziguten. Baritonok musikaltasuna eta kolorea azaldu zituen, eroso zebilela goi tesituran; baxuak ziurtasuna eta indarra, pertsonaiak eskatzen duen lerro-kantua.

BOS eta Andra Mari, ederki

Marta Urbietari txalotu behar zaio bere kalidadea eta balentria, Olatz Saituaren gaixotasuna zela medio Txikiren rola bereganatzeko denbora eskasa izan baitzuen. Hala ere, kantaldi fina, ahoskera eta musikaltasuna izan ziren Urbietak agertutako dohainak. Jose Antonio Carrilek kantaldi zuzena egin arren, nabaritu zitzaion bolumen gutxiko ahotsa duela, Kalkuren rola betetzeko desegokitasuna.

Joaldi orekatua egin zuen Bilboko Orkestra Sinfonikoa oro har, hobeto hirugarren ekitaldian. Zati horretako eszena koralean kantatu zuen ederki Errenteriako Andra Mari Koralak, Jose Manuel Tiferen zuzendaritzapean. Talde konpaktorearen itxura emanez, musikaltasuna, dinamika eta ahoskera paregabea erakutsi zituen, bai abesbatza mistoak zein gizonenak *Korrika bide txigortatik* edo *Ave Maria*-n.

Artisten ahaleginak ez zuen merezi antzokiak agertzen zuen sarrera erdia, Bilbon egun berean ospatzen zen musikaren nazioarteko egunean. Halaber, eskuko egitarauaren euskarazko testua akatsez beterik zegoen. Lehengokoa zuzentzeko egon badago aukera larunbateko emanaldian, gogoz gomendatzen dizueguna.

KRITIKA MUSIKA

Joseba Martin

Senar-emazte maiteminduak kantari

Victoria Williams & Mark Olson - Driver 8

Lekua: Bilboko Kafe Antzokia. **Data:** Ekainak 21. **Jende kopurua:** 200 lagun.

Salneurria: 2.500 pezeta.

Gau amerikarra izan arren, britainiarren puntualtasunaz hasi zen ekitaldia. Driver 8 seikotea izan zen lehenbiziko taldea. El Puerto de Santa Mariako talde beterano horrek —1994an hasi ziren jo eta ke, bertako Maddening Flames proiektu paralelo moduan— hasierako diskoa aurkeztu zuten, *Stay around*. Country, folk, pop eta rock amerikarra eskaintzen dituzte, eta bere musikaren barruan REM —bere kantu batetik hartu dute izena—, Wilco, Waco, The Byrds, Flying Burrito Brothers, Tom Petty eta beste antzerako artistak dituzte iturri. Kontzertu ona egin zuten, baladak eta bitarteko erritmoak kateatuz. Bigarren hauen artean, oso ondo geratu ziren *Trade your tears*, *Cold winds*, *Hold on you* eta *Hard to say no*, batez ere ahazko harmoniengatik. Dani Selma kantariaren gitarren soloak eta Victor Navaroren mandolina ere kon-tuan hartzeak ziren. Dirudienez, urrian izango dira bueltan gurean. Saiatu ez galtzen.


Ondoren, Estatu Batuetako bikote bitxia: Victoria Williams eta The Jayhawks taldean ibilia den Mark Olson. Haiekin Dave Wolfenburger bateria jolea eta Josh gitarra, baxu eta teklatu jolea. Bakar-kako bideak jarraitu ondoren, Victoria eta Mark elkartu dira The Original Harmony Ridge Creekdippers osatzeko. Eta, nola edo hala, antzinako Emmylou Harris-ek eta Gram Parsonsek osaturiko bikotea gogoratu zigutenean.

Mark Olson dugu taldearen burua, baxuarekin eta ahots nagusian gehienetan. Baina xarma berezia du Victoriak mikroaren aurrean: ahots nahastezin batez baliatzen da, oso agudoa, inprobisaziorako beti prest, eskuak eta besoak mugituz, aurpegiarekin keinu bitxiak sortuz, beti irribarre batez, beti ezinegonean. Eta ondoan, Mark jatorra, emazteari laguntzeko prest: instrumentuak aldatuz, pedal hondatua baztertuz, aulkia ekarri, mikroaren oinarria moldatuz... eta, beti ere, irribarre batez, askotan elkarri begira. Hauek dira hauek senar-emazteak.

Victoria Williams langilea

My own Joe Ellen azken lanari ekin zioten. Horrela heldu ziren *Meeting in Lone Pine*, *Letter from Africa* —Victoriak afrikar thumb piano txikia jo zuen—, *Someone to talk with*, *Ben Johnson's creek*, *Diamond Davey* edo *Rainbow of your heart*, besteak beste. Oso gutxitan izan zen Victoria kantari nagusia, baina une aberats horietan folk-jazz eta country-folkean aritu zen gehienbat. Osasun arazoaren gainetik, lan handia egin zuen: gitarrak, perkusioak, banjoa eta harmonika jo zituen. Mark, bere alde, teklatu-tuetan aritu zen; noizean behin eta azken atalean, baxuaren orde, gitarra akustikoa hartu zuen, gaueko une beroenak lortuz. Driver 8-ko gitarra jolea eta bateria jolea gonbidatu zituztela kantauak hobetzeko.

Dena den, oso jende gutxi agertu zen —prezioagatik? eguraldiagatik?—; berdin da: rock, folk eta country amerikarra maitatzen badituzu, hauxe izan zen zure gaua. Ruper Ordorika han zegoen lekuko; galdeiozu.



“Pentsatu, ez sinetsi”
Magrittek ez omen zuen pipatzen

Fito Rodriguez

Txalaparta

